- Recoger las solicitudes de exposiciones y coordinar el calendario de exposiciones con la dirección de cultura, encargándose de que se realicen los soportes publicitarios de éstas cuando así se precise, así como los montajes y desmontajes de las exposiciones, ayudando en éstos cuando así se requiera.

- Realizar pequeñas reparaciones, reposiciones y traslados de pequeños enseres.

- Pegar carteles informativos de actividades organizadas por el Ayuntamiento de Mungia cuando así se requiera.

- Realizar llamadas para convocar a reuniones, invitaciones, informar de cambios de convocatorias, etc.

- Cuantas otras de preceptivo cumplimiento sean fijadas por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Mungia, en cumplimiento de disposiciones de carácter general.

2.2.- Giza Baliabideak.

- Esleipendunak atezaintza-zerbitzua emateko erabiltzen duen kontratua gauzatzeko jartzen dituen langileek indarrean dagoen Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Hitzarmeneko 5. kategoria izan beharko dute. Langile-talde horiek gutxienez hiru pertsonak osatuko dituzte, ematen duten zerbitzua aldi berean espazio desberdinetan egin ahal izango delako. Eta pertsona horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Zerbitzu honetan eskatzen den lanbide-gaitasuna izatea (eskola-graduatua edo eskola-

2.2.- Medios Humanos.

- El personal responsable de la ejecución del contrato que el adjudicatario destine a la prestación del Servicio de Conserjería deberá tener la categoría 5 del Convenio de Intervención Social de Bizkaia vigente. Este personal deberá estar formado por un mínimo tres personas debido a que el servicio que presten podrá realizarse simultáneamente en espacios diferentes. Y estas personas deberán reunir los siguientes requisitos:

- Poseer la capacitación profesional requerida en este servicio (Graduado escolar o certificado de escolaridad).

MUNGIA
UDALA

ziurtagiria).

- Erabiltzaile-mailako informatika-ezagutzak izatea.
- B2 euskara-maila. Zerbitzu hori eskaintzen duten langileek Europako Erreferentzia Esparruko B2 euskara-gaitasuna edo titulu baliokideak egiaztatu beharko dituzte; edo, bestela, kontratu honetan eskatzen den ahozko euskara-maila dutela frogatzeko, Udal Euskaltegiak edo Mungiako Udaleko Euskara Sailak egingo dien proba gainditu beharko dute. Beraz, jendeari arreta emango dioten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial 2etan komunikatzeko gai direla eta herritarrei zuzendutako komunikazio guztia hizkuntza bietan egiten dela bermatu beharko da, Mungiako Udaleko Euskararen Ordenantzak ezarritakoei jarraituz edota Mungiako Udaleko Euskara Sailak gainbegiratuta.
- Kontratuaren xedearen antzeko lanak egiten esperientzia azken urtean
- Udalerria ezagutzea.

- Poseer conocimientos de informática a nivel de usuario.
- Nivel B2 de euskera. El personal destinado a ofrecer este servicio deberá acreditar el nivel de competencia de euskera B2 del Marco Europeo de Referencia o títulos equivalentes o, en su defecto y para demostrar que posee el nivel oral de euskera exigido por este contrato, superar la prueba que le será realizada por el Euskaltegi Municipal o por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Mungia. Se deberá, por tanto, garantizar que las personas que vayan a atender al público sean capaces de comunicarse en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca y que toda la comunicación dirigida a la ciudadanía se realice en ambos idiomas siguiendo las indicaciones establecidas por la Ordenanza del Euskera del Ayuntamiento de Mungia o bajo la supervisión del departamento de Euskera del Ayuntamiento de Mungia.
- Experiencia en el desarrollo de trabajos similares al del objeto del contrato en el último año.
- Conocimiento del municipio.

2.3.- Baliabide materialak.

Mungiako Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren altzariak, beharrezko materiala, ikus-entzunezko eta informatikako ekipamenduak, datu-baseak...

2.3.- Medios materiales.

El Ayuntamiento de Mungia pondrá a disposición del adjudicatario el mobiliario, material necesario, equipamientos audiovisuales e informáticos, bases de datos... necesarios para la correcta prestación del Servicio.

3.- TAILERREN ZERBITZUA.

Enpresa esleipendunak urtean 100 ordu eskaini beharko ditu, gutxienez, tailer desberdinak egiteko, urteko hainbat garaitan, herritarren egungo eskariari erantzunez eta Kultura eta Gazteria Sailarekin adostuta.

Tailerrok ume, gazte eta nerabeentzat izango dira, eta gehienak euskaraz eskainiko dira.

3.- SERVICIO DE TALLERES.

La empresa adjudicataria deberá ofrecer un mínimo de 100 horas anuales de diferentes alternativas de talleres en distintas épocas del año, atendiendo a la demanda actual de la ciudadanía a la que se dirigen y de forma consensuada con el Departamento de Cultura y Juventud.

Los talleres deberán estar dirigidos a la población infantil, juvenil y adolescente y serán ofrecidos

Tailerrak egiteko orduak kultura eta gazteria arloaren irizpidearen arabera aldatu ahal izango dira, eskaera, dauden azpiegiturak eta Udalaren aurrekontu-ahalmena kontuan hartuta.

mayoritariamente en euskera. Las horas destinadas a la realización de talleres podrán ser modificadas a criterio del área de cultura y juventud, atendiendo a la demanda, a las infraestructuras existentes y a la capacidad presupuestaria del Ayuntamiento.

3.1.- Giza Baliabideak.

Esleipendunak Tailer-zerbitzua emateko erabiltzen duen kontratua gauzatzeko jartzen dituen langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Zerbitzua emateko behar den lanbide-gaitasuna izatea (goi-mailako batxilergoa edo LH2 gutxienez).
- Euskararen C1 maila. Zerbitzu hori eskaintzen duten langileek Europako Erreferentzia Esparruko C1 euskara-gaitasuna edo titulu baliokideak egiaztatu beharko dituzte; edo, bestela, kontratu honetan eskatzen den ahozko euskara-maila dutela frogatzeko, Udal Euskaltegiak edo Mungiako Udaleko Euskara Sailak egingo dien proba gainditu beharko dute. Beraz, jendeari arreta emango dioten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan komunikatzeko gai direla eta herritarrei zuzendutako komunikazio guztia hizkuntza bietan egiten dela bermatu beharko da, Mungiako Udaleko Euskararen Ordenantzak ezarritakoei jarraituz edota Mungiako Udaleko Euskara Sailak gainbegiratuta.
- Kontratuaren xedearen antzeko lanak egiten esperientzia azken urtean.

3.1.- Medios Humanos.

El personal responsable de la ejecución del contrato que el adjudicatario destine a la prestación del Servicio de Talleres deberá reunir los siguientes requisitos:

- Poseer la capacitación profesional requerida para la prestación del servicio (Bachiller superior o FP 2 como mínimo).
- Nivel C1 de euskera. El personal destinado a ofrecer este servicio deberá acreditar el nivel de competencia de euskera C1 del Marco Europeo de Referencia o títulos equivalentes o, en su defecto y para demostrar que posee el nivel oral de euskera exigido por este contrato, superar la prueba que le será realizada por el Euskaltegi Municipal o por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Mungia. Se deberá, por tanto, garantizar que las personas que vayan a atender al público sean capaces de comunicarse en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca y que toda la comunicación dirigida a la ciudadanía se realice en ambos idiomas siguiendo las indicaciones establecidas por la Ordenanza del Euskera del Ayuntamiento de Mungia o bajo la supervisión del departamento de Euskera del Ayuntamiento de Mungia.
- Experiencia en el desarrollo de trabajos similares al del objeto del contrato en el último año.

3.2.- Baliabide materialak

Mungiako Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren altzariak, materiala eta ekipoak.

Esleipenduna izango da zerbitzua ematean

3.2.- Medios materiales

El Ayuntamiento de Mungia pondrá a disposición de la adjudicataria el mobiliario, material, equipo necesarios para la correcta prestación del Servicio en cuestión.

La adjudicataria será responsable del buen uso de la

erabili beharreko makineria, aparatuak, materiala eta gainerako ekipoak behar bezala erabiltzearen erantzule, baldin eta udal-jabetzakoak badira, eta beste bat jarri beharko du hori galtzea edo kaltetzea erabilera desegokiaren ondorio zuzena bada.

Administrazioak esleipendunaren esku jartzen duen informazio guztia eta gainerako baliabide edo datu guztiak Administrazioaren jabetzakoak dira, eta kontratatutako lanak egiteko beharrezkoa den neurrian baino ezin izango dira erabili edo erreproduzitu. Esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratua amaitzean horiek guztiak itzultzeko edo deustezteko.

4.- APARTEKO ZERBITZUAK.

Aparteko zerbitzuak eskatu ahal izango dira garai jakin batzuetan edo noizbehinkako jardueretarako. Enpresa lizitatzaileak zerbitzu bakoitzaren orduko balioa adierazi beharko du, eta horiek lizitazio-preziotik kanpo egongo dira, baina memoriaren eta eskaintzaren barruan sartuko dira, bai eta lehiaketaren balorazioaren barruan ere.

Aparteko zerbitzu hauek eskatzen dira:

- Gazteen dinamizatzailea edo dinamizatzaile soziokulturala. Enpresa esleipendunak agiri honen 1.2 puntuan zehazten diren langileen profilari buruzko baldintza guztiak betetzen dituzten langileak aurkeztu beharko ditu, baita behar diren egiaztagiriak eta kasuan kasu Mungiako Udalak egokitzat jotzen dituen ezaugarriak ere.

- Aisialdiko begiraleak. Enpresa esleipendunak agiri honen 1.2 puntuan zehazten diren langileen profilari buruzko baldintza guztiak betetzen dituzten langileak aurkeztu beharko ditu, baita behar diren egiaztagiriak eta kasuan kasu Mungiako Udalak egokitzat jotzen dituen ezaugarriak ere.

- Atezaintza. Enpresa esleipendunak agiri honetako 2.2 puntuko baldintza guztiak betetzen dituzten langileak aurkeztu

maquinaria, aparatos, material y demás equipos a utilizar en la prestación del servicio, que sea de propiedad municipal, debiendo reponerlo cuando su pérdida o deterioro sea consecuencia directa de un uso inadecuado.

Toda la información, y demás medios o datos que la Administración ponga a disposición de la adjudicataria, son propiedad de la Administración y no podrán ser utilizados o reproducidos más que en la medida en que sea necesario para desarrollar los trabajos contratados, comprometiéndose el adjudicatario a devolverlos o destruirlos al finalizar el contrato.

4.- SERVICIOS EXTRAORDINARIOS.

Se podrán requerir servicios extraordinarios en épocas concretas o para actividades esporádicas. La empresa licitadora deberá indicar el precio-hora de cada servicio, y éstos estarán fuera del precio de licitación, pero sí se incluirán dentro de la memoria y de la oferta, así como dentro de la valoración del concurso.

Los servicios extraordinarios que se solicitan son:

- Dinamizador/a juvenil o sociocultural. La empresa adjudicataria deberá aportar personal que cumpla todos los requisitos concernientes al perfil del personal que se detallan en el punto 1.2 del presente pliego, con los certificados correspondientes así como otras características que el Ayuntamiento de Mungia estime oportunas en cada caso.

- Monitores de tiempo libre. La empresa adjudicataria deberá aportar personal que cumpla todos los requisitos concernientes al perfil del personal que se detallan en el punto 1.2 del presente pliego, con los certificados correspondientes así como otras características que el Ayuntamiento de Mungia estime oportunas en cada caso.

- Conserjería. La empresa adjudicataria deberá aportar personal que cumpla todos los requisitos del punto 2.2 del presente pliego,

beharko ditu, baita behar diren egiaztagiriak eta kasuan kasu Mungiako Udalak egokitzat jotzen dituen ezaugarriak ere.

- Ekitaldiak egiten laguntzeko langileak: zamalanak, muntaketak eta desmuntaketak, sarreren kobrantza, zaintza eta kontrola, segurtasuna eta abar, Udalak ekitaldi bakoitza hobeto garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ezaugarrien arabera. Enpresa esleipendunak agiri honetako 2.2. puntuko baldintza guztiak betetzen dituzten langileak aurkeztu beharko ditu, baita behar diren egiaztagiriak eta kasuan kasu Mungiako Udalak egokitzat jotzen dituen ezaugarriak ere.

5.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak, zerbitzua ematen duten langileei dagokienez. Udala ez-betetze horren erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, eta indarrean dagoen Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko sektoreko hitzarmen kolektiboaren soldata-taulak bermatuko dizkie langileei, baldintza agiri honen A eranskinean agertzen den bezala.

Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, enpresa esleipendunak, jarduera egin aurretik, agiri hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez:

- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa, horrelako aurrekaririk ez dagoela egiaztatzeko. Kontratatutako enpresak edo erakundeak Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiriak eman beharko dizkio Kontratazio Arloari, kontratua gauzatzearen esparruan adingabeekin ohiko harremanetan egongo diren pertsona guztien kasuan.

con los certificados acreditativos correspondientes así como otras características que el Ayuntamiento de Mungia estime oportunas en cada caso.

- Personal de ayuda para la realización de eventos: carga y descarga, montajes y desmontajes, cobro de entradas, vigilancia y control, seguridad, etc. según las características que el Ayuntamiento estime necesarias para el mejor desarrollo de cada evento. La empresa adjudicataria deberá aportar personal que cumpla todos los requisitos del punto 2.2 del presente pliego, con los certificados acreditativos correspondientes así como otras características que el Ayuntamiento de Mungia estime oportunas en cada caso.

5.-OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.

La empresa adjudicataria estará obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, con respecto al personal que emplee en la prestación del servicio, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento y garantizando al personal las tablas salariales del Convenio Colectivo del sector de Intervención Social de Bizkaia vigente y que figura como anexo A del presente pliego.

De conformidad con la Ley 26/2015 de 28 de julio de modificación del sistema de protección de la infancia y adolescencia, la empresa adjudicataria deberá aportar obligatoriamente, con anterioridad a la realización de la actividad, la siguiente documentación:

- Certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales con el fin de acreditar la inexistencia de antecedentes de tales características. La empresa o entidad contratada deberá hacer entrega al Área de Contratación de las certificaciones del Registro Central de Delincuentes Sexuales de todas aquellas personas que, en el marco de la ejecución del contrato, van a estar en contacto habitual con menores.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak bilerak egingo ditu aldizka bere langileekin eta Mungiako Udaleko Kultura Arloko teknikariekin, sortzen diren gorabehera guztien berri izan dezaten. Horretarako, enpresa esleipendunak arduradun bat izendatuko du, Udalarekiko solaskidea izango dena. Eta, hortik aparte, Kultura Sailak eskatuta, enpresako teknikari kualifikatuek gutxienez 50 orduko laguntza teknikoa emango diote Kultura Arloari gazte-programa edo -proiektu berriak edo kontratuaren xedearekin lotutako beste alderdi batzuk diseinatzeko.

La empresa adjudicataria del servicio realizará periódicamente reuniones con su personal así como con el personal técnico del Área de Cultura del Ayuntamiento de Mungia para mantenerle informado de cuantas incidencias fueran surgiendo; para ello la empresa adjudicataria nombrará a una persona responsable que será la interlocutora con el Ayuntamiento. Y además realizará a petición del Área de Cultura una aportación mínima de 50 horas de asistencia técnica a esta Área por parte de personal técnico cualificado de la empresa para el diseño de nuevos programas o proyectos culturales y/o juveniles u otros aspectos relacionados con el objeto del contrato.

Enpresa esleipendunak, jarduerak garatzeko, erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguru bat kontratatu beharko du aseguru-enpresa batekin; eta horren kopia bat aurkeztu beharko du Mungiako Udalean.

La empresa adjudicataria deberá contratar con una empresa aseguradora un Seguro de Responsabilidad Civil y de accidentes con cobertura para el desarrollo de las actividades debiendo presentar copia en el Ayuntamiento de Mungia.

Enpresa esleipendunak, Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoa aplikatuz, B eranskinean agertzen diren pertsonak subrogatuko ditu.

En aplicación de lo establecido en el Convenio Colectivo del sector de Intervención Social de Bizkaia, la empresa adjudicataria procederá a la subrogación de las personas que figuran en el anexo B.

6.-PARTIDA.

43/33402/22718

6.-PARTIDA.

43/33402/22718

7.- AURREKONTUA.

Urteko aurrekontu eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan 123.553,72 € izango dira, BEZik gabe. Kontratu honen balio zenbatetsia 543.636,37€-koa izango da (BEZik gabe).

7.- PRESUPUESTO.

El presupuesto anual y presupuesto base de licitación se establece 123.553,72€ IVA excluido. El valor estimado del presente contrato se establece en 543.636,37€, (IVA excluido).

Kontratuaren eta indarreko legediaren arabera, esleipendunaren kontura izango diren balorazio-faktore eta gastu guztiak hartzen ditu barne kalkuluak, baita edozein motatako zergak ere.

Su cálculo incluye todos los factores de valoración y gastos que, según el contrato y la legislación vigente serán de cuenta del adjudicatario, así como los tributos de cualquier índole.

Edozein kasutan ere, partida independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

En todo caso, se indicará como partida independiente el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA).

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gaindituz aurkezten diren proposamenak automatikoki baztertuko dira.

Las proposiciones que se presenten superando el presupuesto base de licitación serán automáticamente desechadas.

Adostu daitezkeen aparteko zerbitzuak bereizita ordainduko dira, eskaintzan ezarritako

Los servicios extraordinarios que se pudieran acordar se abonarán de forma separada, según los precios

orduko prezio unitarioen arabera.

Enpresa lehiakideak eskainitako prezioan honako hauek sartuko dira: lanen zenbateko materiala, mozkin industriala, zergak, balio erantsiaren gaineko zerga barne, aseguruak, pertsonal-gastuak, karga sozialak eta gainerako elementuak. Horrenbestez, Mungiako Udalak ez du inolako kontzeptutan ordainduko kontratuaren esleipen-preziotik ateratzen dena baino kopuru handiagorik.

unitarios por hora establecidos en la oferta.

En el precio ofertado por la empresa concursante se englobarán el importe material de los trabajos, beneficio industrial, impuestos, incluido el impuesto sobre el valor añadido, seguros, gastos de personal, cargas sociales y demás elementos, de tal suerte que el Ayuntamiento de Mungia no abonará bajo concepto alguno, cantidad superior a la que resultase del precio de adjudicación del contrato.

8.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuaren iraupena urte 2koa izango da, eta bete urte 2an luzatzeko aukera izango du (1+1).

8.-DURACIÓN DEL CONTRATO.

La duración del contrato se establece en 2 años, con posibilidad de prórroga de 2 años (1+1).

9.- BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK.

Eskaintzen balorazioa lehiaketa esleitzeko oinarri izango diren irizpide objektiboetan oinarrituko da. Aurkeztutako aurkezpenari erreparatuko zaio, eta irizpide hauetan oinarritutako puntuazioan oinarrituko da, garrantziaren arabera neurtuta:

9.-ASPECTOS OBJETO DE VALORACIÓN.

La valoración de las ofertas se basará en criterios objetivos que servirán de base para la adjudicación del concurso. Se atenderá a la presentación presentada y se regulará sobre la base de una puntuación fundamentada en los siguientes criterios ponderados por orden decreciente de importancia:

9.1.- Automatikoki ebaluatzen ez diren irizpideak (40 puntu).

Balio-judizio baten mende dauden irizpideak automatikoki baloratuko direnen aurretik baloratuko dira, garrantziaren arabera eta ematen zaien haztapenaren arabera; honako hauek dira:

9.1.- Criterios evaluables de forma no automática (40 puntos).

Los criterios dependientes de un juicio de valor y que se valorarán previamente a los de apreciación automática, por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

Zerbitzuaren deskribapen-memoria: **40 puntu**, gehienez, honela banatuta:

- Programa (zerbitzuak emateko helburuak eta metodologia, bai eta gizarte-, kultura- eta gazte-programak proposatzea ere); baldintza-agirian eskatutako edukira egokituta eskatuko dira: **20 puntu**, gehienez.

- Egitura- eta koordinazio-lanak kontratatutako zerbitzuarekin, bai udaleko teknikariekin, bai kontratatutako erakundeko langileekin. Atal honetan, kontratatutako zerbitzuaren eskura dauden enpresa esleipendunaren langileek egingo

Memoria descriptiva del servicio: hasta un total de **40 puntos**, desglosados de la siguiente forma:

- Programa (objetivos y metodología de la prestación de los servicios, así como propuesta de programas socioculturales y juveniles); requeridos con adecuación al contenido exigido en el pliego: Hasta un total de **20 puntos**.

- Labores de estructura y coordinación con el servicio contratado, tanto con el personal técnico del Ayuntamiento, como con el personal de la entidad contratada En este apartado deberá especificarse, en concreto, las labores que realizarán los cuadros de la empresa adjudicataria a disposición del

MUNGIA
UDALA

dituzten lanak zehaztu beharko dira, langile horien titulazioa eta esperientzia zehaztuta, bai eta erabili beharreko prozedurak ere. Ildo horretan, honako hauek baloratuko dira: zerbitzuaren esku jarritako langileen gaitasuna, ordu-dedikazioa, eta kontratatutako zerbitzuari buruzko jarraipena, azterketa, informazioa eta abar: **10 puntu**, gehienez.

servicio contratado, con especificación de la titulación y experiencia del citado personal, así como los procedimientos a utilizar. Se valorará en tal sentido, la capacidad del personal puesto a disposición del servicio, la dedicación horaria y la labor de seguimiento, estudio, información, etc., en relación con el servicio contratado. Hasta un total de **10 puntos.**

- Politika sozio-laboralak eta enpresako langileen kudeaketa-sistemak. Langileak hautatzeko eta hartzeko dauden sistemak eta prozesuak baloratuko dira, baita enpresan dauden prestakuntza-, gaikuntza- eta euskalduntze-planak eta genero-ikuspegia duten politikak ere. **10 puntu**, gehienez.

- Política socio-laboral y sistemas de gestión del personal de la empresa. Se valorará la existencia de sistemas y procesos de selección, acogida del personal, así como los planes de formación, capacitación, de euskaldunización existente en la empresa y políticas con perspectiva de género. Hasta un total de **10 puntos.**

Deskribapen memoriak 100 orrialde izango ditu gehienez. A4 formatua, orrialde alde bat eta zenbakitua, 1,5eko tartea, gutxieneko tamaina Arial 11 edo antzeko tamaina duen beste bat.

La memoria descriptiva tendrá como máximo 100 páginas (formato A4, una cara, numerada, espaciado 1,5, tamaño mínimo Arial 11 u otro de similar tamaño).

9.2.- Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak (60 puntu).

9.2.- Criterios evaluables de forma automática (60 puntos).

A.- Eskaintza ekonomikoa: 0 puntutik 47ra arte. Eskaintza ekonomikoa honela desglosatuta baloratuko da:

A.- Oferta económica: de 0 a **47 puntos.** Se valorará la oferta económica desglosados de la siguiente forma:

Lizitatzaileak eskainitako prezio baxuagoa: 47 puntu. Gainerako eskaintzak formula honen arabera kalkulatuko dira:

Menor precio ofertado por el licitador 47 puntos. El resto de las ofertas se calculará en base a la siguiente fórmula:

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa = 47 x lizitatzaileen arteko eskaintza merkeena /baloratzen den lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa.
Ausarkeriazkotzat edo neurriz kanpoko bajutzat jo ahal izango da lizitatzaileen eskaintzen batez bestekoa baino % 15 gainditzen duena.

Puntuación oferta económica = 47 x oferta más económica entre los licitadores /oferta económica del licitador que se valora.

Se podrá considerar baja temeraria o desproporcionada aquella que exceda del 15% a la media de las ofertas de los licitadores.

B.- Ezohiko zerbitzuen prezioa, indarrean dagoen Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Hitzarmenaren arabera: **10 puntu** emango dira gehienez. 0 puntutik 2,5 puntura baloratuko da atal hauetako bakoitza: Gazteria edo kultura dinamizataile, aisialdirako monitoreak, atezainak eta

B.- Precio de los servicios extraordinarios según el Convenio de Intervención Social de Bizkaia vigente: Se asignará un máximo de **10 puntos**. Se valorarán de 0 a 2,5 puntos cada apartado, siendo los siguientes: Dinamizador/a juvenil o sociocultural, Monitores de tiempo libre,

ekitaldiak egiten laguntzeko pertsonala.

Zerbitzu horiek banatzen diren 4 ataletako bakoitzean eskainitako orduko preziorik merkeenak 2,5 puntu lortuko ditu; gainerako eskaintzek honako formula honen arabera lortuko dute puntuazioa, eta hori izango da atal bakoitzean aplikatu beharrekoa:

Atal bakoitzeko eskaintza ekonomikoaren puntuazioa = 2,5 x eskaintza merkeena lizitatzaileen artean/baloratzen den lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa.

Ausarkeriazkotzat edo neurriz kanpoko bajutzat jo ahal izango da lizitatzaileen eskaintzen batez bestekoa baino % 15 gainditzen duena.

Conserjes y Personal de ayuda para la realización de eventos.

El precio hora más barato ofrecido en cada uno de los 4 apartados en que se dividen estos servicios obtendrá los 2,5 puntos y el resto de las ofertas obtendrán la puntuación en base a la siguiente fórmula, a aplicar en cada apartado:

Puntuación oferta económica en cada apartado = 2,5 x oferta más económica entre los licitadores / oferta económica del licitador que se valora.

Se podrá considerar baja temeraria o desproporcionada aquella que exceda del 15% a la media de las ofertas de los licitadores.

C.- Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-kudeaketan emandako kalitate-ziurtagiria. **3 puntu.**

C.- Certificado de calidad emitido por Gobierno Vasco en la gestión lingüística. **3 puntos.**

Berdinketa gertatuz gero, memoria deskribatzailearen atalean puntuazio handiena lortu duen enpresari esleituko zaio. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez esleituko da.

En caso de empate se adjudicará a la empresa que haya obtenido mayor puntuación en el apartado de Memoria Descriptiva. Si persistiera el empate, se adjudicará mediante sorteo.

10.- KONTRATISTA HAUTATZEKO IRIZPIDEAK.

Azken hiru urteetan Agiri tekniko honetan eskatutakoarekin lotutako mota bereko edo antzeko proiektu bat gutxienez egin dela egiaztatu beharko da. Horretarako, enpresa lizitatzaileek erakunde publiko edo pribatuen ziurtagiriak edo hori egiaztatzen duen beste edozein agiri aurkeztu beharko dute.

10.-CRITERIOS DE SELECCIÓN DEL CONTRATISTA.

Deberá acreditar la realización de al menos un proyecto de este tipo o de similares características relacionados con lo solicitado en este Pliego Técnico durante los últimos tres años, para lo cual las empresas licitadoras deberán presentar certificados de entidades públicas o privadas u otra documentación que lo acredite.

11.- PROIEKTUA.

Enpresa lizitatzaileak proiektu bat aurkeztu beharko du, kontratuaren xede diren puntu guzti-guztiak garatuko dituena, eta, proiektuarekin batera, enpresa edo elkarte lizitatzailearen eta zerbitzu hori betetzeko langileen kaudimen teknikoa aurkeztu beharko du. Hori egin ezean, kontratuaren xedearekin bat ez datorrela ulertuko da, eta ez da proposamena baloratuko.

11.-PROYECTO.

La empresa licitadora deberá presentar un proyecto en el que se desarrolle todos y cada uno de los de los puntos objeto del contrato, debiendo aportar junto con el proyecto la solvencia técnica de la empresa o asociación licitadora así como del personal destinado a cubrir este servicio. En caso contrario se considera que no se ajusta al objeto del contrato y no se entrará a valorar la propuesta.

Mungian, 2021eko martxoaren 23an. En Mungia a 27 de abril de 2021.

Idoia Ortiz de Zarate Arkotxa

Kultura zuzendaria

MUNGIA
UDALA

Eranskinak.

A.- Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko sektoreko hitzarmen kolektiboa.

B.- Subrogatu beharreko langileen taula.

Anexos.

A.- Convenio Colectivo del sector de Intervención Social de Bizkaia.

B.- Tabla de personal a subrogar.